



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO AZAROAREN 28KO BILERAREN AKTA

Deialdia: Lehenengoa

Bilera: Ohikoa

Eguna: 2019.11.28

Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko arteo nagusia.

BERTARATUAK:

Dabid Iturria Almandoz, jn.

Leire Mitxelena Gamio, and.

Beñat Mitxelena Danboriena, jn.

Markel Jorajuria Elizondo, jn.

Joseba Pikabea Iribarren, jn.

Imanol Lukanbio Laretxea, jn.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Eneko Sarrias Zoco.

IDAZKARIA:

Ainara Velez Ara, and.

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

2019/10/22KO ez ohiko bilkuraren bi aktak aho batez onartzen dituzte.

2.- ANGEL URTXEGI TELLETXEAREN IZENDAPENA

Ikusirik 2018/09/10an, Arantzako Udalak hartutako erabakia zerbitzu anitzetako langilea mailaz igotzeko.

Ikusirik deialdiaren oinarriak eta bertan ezarritako betekizunak bete egin direla.

Ohiko osoko bilkurak erabaki du:

1.- Angel Urtxegi Dorronsoro Arantzako Udaleko Zerbitzu Anitzetako Arduraduna (C mailako) langilea izendatzea.

2.- Akordio hau interesatuari eta Aholkularitza Laboralari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- ARANTZAKO HOTELA HANDITZEKO HIRI JARDUERARAKO PLAN BEREZIA . HASIERAKO ONESPENA

Ikusirik 2019ko azaroaren 09an Alberto Madinabeitiak aurkezturiko Hiri Jarduerarako Plan Berezia.

Ikusirik 2019ko azaroaren 21ean Udal Arkitektoak aurkezturiko kontrako txostena.

Ohiko Osoko Bilkurak aho batez erabakitzen du:

1.- Alberto Madinabeitiak Arantzako 2. Poligonoko 50 partzelan aurkezturiko Hiri Jarduerarako Plan Bereziari, hasierako onespena ez ematea.

2.- Akordio hau interesatuari bidaltzea udal arkitektoaren txostenarekin batera.

4.- BOLIVIAKO ESTATU KOLPEAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Udal taldeak ondoren osoki transkribaturiko adierazpen instituzionala aho batez onartu zuen:

“ Azaroaren 10an Boliviako Estatu Plurinazionalako Presidente Evo Moralesek bere dimisio aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa eman baino lehen Morales presidentearen, bere gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsien senideen kontrako erasoak eman ziren.

Estatu Kolpe honen ondorioz, egoera benetan larria da eta konfrontazio zibilaren arriskua handia dela azpimarratu nahi dugu, izan ere estatu kolpea bultzatu duten indarrek errepresioarekin erantzuten ari zaizkio Moralesen alde antolatutako herritarrei. Aurreko hilabetean izandako hauteskundetan Evo Moralesek bozen %46 lortu zituela eta hauteskunde horiek errepikatzeko prestutasuna adierazi duela azpimarratzekoa da ere.

Egun honen aurrean, Arantzako Udalak honako ADIERAZPENAREN INSTITUZIONALA onartzeko erabakia hartu du:

1.- Gogor salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea

2.- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negozio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpo bultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzera deitzen ditu.

3.- Bere babes adierazi nahi die Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatzen hasi diren herritarrei.

4.- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera”.

5.- HERRITARREN ESKAERA

Alkateak zenbait herritar aurkezturiko idatzi baten berri ematen die udalbatzako gainontzeko kideei.

6.- EBAZPENAK

Alkateak 2019/133-2019/147 ebazpenen edukien berri ematen du eta Udal batzak aho batez ebazpenak berresten ditu.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez daude.

Alkate jaunak bilkura amaitutzak ematen du 20:20etan. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA,
Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,
Ainara Velez Ara



